

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 4a / 547. zenbakia



Domekan, danok San Martzialera, e!

FUTBOLA: **JUANJO ARRIETAREKIN BERBETAN/11** • BERTSO ESKOLA: **HELDUEN EMANALDIA POL-POLEN/12**

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA SANTA MARINA PARROKIAK UTZIA



# ¿Ba al dakizu zer den DENA?


**DENA** establezimendu bakoitzean mila modelotik gora izatea da.

**DENA** urtebetez modelo guztiak bermatuta edukitzea da.

**DENA** marka-aukera handiena izatea da.

**DENA** prezio guztiak izatea da.

## DENA, Eguzki-Betaurrekoetan DENA edukitzea da



DOLCE & GABBANA

VERSACE



DRAGON

Carolina Herrera  
New York



GIORGIO ARMANI

Christian Dior

EVANEY

ROCHAS  
PARIS

Ibargarai 16 • BERGARA • ☎ 943 76 15 75



# %50

-ERAINOKO BEHERAPENAK

## Mirari

JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

# %50

-ERAINOKO BEHERAPENAK

**ATREBENTZIAEZPADA/ Ze da San Martzialgo erromerixatik gehixen eta gutxien gustatzen jatzuna?**



**MADDI IRIARTE**  
15 urte




**ANA PESCADOR**  
69 urte



**ITZIAR BALZATEGI**  
42 urte



**JOAQUIN POLVOROSA**  
62 urte



**JESUS JIMÉNEZ**  
71 urte



**ANA GARCÍA**  
65 urte

Gehixen jaitzeria gustatzen jat, ura botatzen dabelako. Eta gutxien gustatzen jatena bertaraino igotzia da. Aurten be jungo naiz, hemen baldin banago, behintzat.

Letanixia, mezia eta txokolatadia da gehixen gustatzen jatena. Eta ez dago ezer gustatzen ez jatenik. Jaixetatik, jeneralian, dana gustatzen jat, eta San Martzialetatik be bai.

Herriko jaixa dala da gehixen gustatzen jatena, eta parte-hartzia oso herrikoia da, oso bertakua. Orokorrian dana gustatzen jat. Ez dago ezer gustatzen ez jatenik.

Lehen, kuadrillakin juten giñan, baiña aspaldixan ez gara juten. Juten nitzanian girua zan gehixen gustatzen jatena, eta gutxien gustatzen jatena bueltatzia izaten zan.

Urtero igotzen naiz. Girua oso politta da. Hori da gehixen gustatzen jatena, egoten dan girua. Eta ez dago ezer gustatzen ez jatenik; danai alde ona topatu bihar jako.

Aspaldi ez naizela juten, baina lehen, goizeko girua gustatzen jatzen gehixen: aurrekua, dantzak... Eta gutxien, gaur egun jaitzeria egitteko modua. Saka-banatuta bajatzen die.

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXISTUAK APARKALEKUA KENTZEN** Arauren bat hausteagatik Ertzaintzak konfiskatzen dituen autoak Torrekua pareko aparkalekuan lagatzen dituzte. Bost batera ere egon izan dira, eta batzuk hainbat egunez, gainera. Kexa hau helarazi digun irakurleari ez zaio batera ondo iruditzen auto horiek han lagatzea, beste batzuei aparkalekua kentzen dihardutelako. /M.B.

**ASTEKODATUA**

**290**

**SAN MARTZIALERAKO ALOKATU DEN MAHAI KOPURUA**

San Martzialera jende ugari joango dela, seguru. Udalak 290 mahai alokatu ditu, eta horri norberak eramandakoak eta mahairik gabe joaten direnak gehituz gero, atera kontuak.

**BESTEKEESANA**

**“** Kooperatiba independenteak sortzea oso arriskutsua da; edozein enpresa proiektu dituen **”**  
erronkez gain, oso kapital gutxirekin sortzen dira eta giza baliabide ez oso garatuekin. Horregatik oso interesgarria izango litzateke administrazioak egitura sendoak bultzatuko balitu talde kooperatibo-  
ei sendotasun handiagoa emateko. (...) Kooperatibak sortzearen aldekoa naiz, baina kooperatiba horiei indarra emango dien azpiegituren batuketatik. (...) Ekonomia soziala eta kooperatibismoa garapen jasangarriaren giltzetako bat da. Dena den, garapen jasangarriaz hitz egiten denean ingurumenean egiten da indar berezia, eta albo batera lagatzen dira arlo ekonomikoa eta soziala. **FERMIN GARMENDIA / LKSk**o zuzendaria 'El Diario Vasco' /03-07-02

**BERAIEKDIÑOĖ/ Jose Angel Mikeo**



*Pelikulak*

**B**izitza tokatu zaigun une honetan denok, *Matrix* pelikulan bezala, kokotetik entxufatuta bizi garen susmoa daukat, pelikulako gidoilariak erabakitzen duten jokoak jokatzen. Gainera, jokoan sartuta gaudela ohartu arren, batzuk gustuz dihardute horretan eta, jokoari jarraiki, irabaziko duten esperantza dutelakoan daude. Beste batzuk, itxuraz itzartuta daudenak, jendea esnarazten ahalegintzen dira, baina badakite pelikula pantailan jokatzen dela eta ez zinemako butakan eta pelikularen gidoia ez dela tabernako barran idazten, ezta kalean oihuka. Pelikulan zer-esana izateko aktorea izan behar da, gidoilari izan behar da, produktorea izan behar da,...

gidoia enkargatu duenaren gustukoa izan beharko du eta gertatzen zaiguna zera da, gure pelikula beste pelikula baten barruan egiten gabiltzala eta beste pelikulak badaukala dagoeneko gidoia, eta tarteka, aktoreen matxinadaren aurrean, gidoi sakratua aurreko aldean jartzen duela beste pelikulako bibotedun zuzendariak eta bere laguntzaile bizardun zuzendari gaiak. Eta hala gabiltza, ez pelikularik, ez gidoirik, teatroa egiten... denok, pelikula batean zein bestean parte hartuz, aktore izan nahi zutenak eta balio ez dutela esan dietenak ere jokoan sartuz, gidoi sakratuaren zuzendariaren aurka egin beharrean beste aktoreen kontra egin ahalak eginez, baina pelikula egoki bat egiteko gaitasunik ere azaldu barik.

**“Dudan kezka zera da, gidoilari zein produktore egokirik dugun nahi dugun pelikula egiteko”**

Eta dudan kezka zera da, gure artean ea ote dugun gidoilari zein produktore egokirik nahi dugun pelikula egiteko ze, pelikula egiten hasita, gidoilariak egokitutako

Eta handiena zera da: Nahiko genukeen pelikula egin eta arrakasta edukitzeko susmorik balego ere zinemako takila armadak hartuta daukala!! Ez al da pelikulakoa!!!

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK /5	KIROLAK /10	KULTURA /12
<b>Domekan San Martzialera</b>	<b>Mongatxurrak, txapeldun</b>	<b>Antzerkia San Martin plazan</b>
Domekan, uztailearen 6an, jendez beteko da San Martzial, erromeria egunarekin bat eginez.	Mongatxurrak taldeak 6-3 irabaziz A Ze Flaxari zapatuan, Labegaraletako Ligako finalean.	Goloka antzerki taldeak egingo du emanaldia. 22:30ean, <i>Berpiztuak</i> lana eskainiko du.

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 4**  
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 5**  
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 6**  
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 7**  
PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 8**  
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 9**  
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 10**  
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIAK**  
Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40  
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46  
Ertzaintza..... 943 76 53 40  
Osasun etxea..... 943 76 24 40  
Asepeyo..... 943 76 16 43  
Pakea..... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23  
Odol emaleak..... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**  
Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**  
Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32  
Igerilekuak..... 943 76 20 51  
Kultura etxea..... 943 77 91 58  
Liburutegia..... 943 77 91 62  
Kiroldegia..... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**  
Epaitegia..... 943 76 14 92  
Erregistroa..... 943 76 13 15  
Jardun..... 943 76 36 61  
Idolaz..... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara..... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71  
Postetxea..... 943 76 26 85  
Bedelkar..... 943 76 04 68  
Akulu AEK..... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                         |                                |
|-------------------------|--------------------------------|
| <b>San Pedro</b>        | <b>Labegaraieta</b>            |
| Domekak:                | Domekak: 11:00.                |
| 09:30, 12:30.           | <b>San Lorentzo</b>            |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00.               |
| 19:00.                  | <b>Angiozar</b>                |
| <b>Sierbak</b>          | Domekak: 11:30.                |
| Lanegunak: 19:15.       | <b>Moja Zaharrak</b>           |
| Zapatuak:               | Lanegunak: 09:00.              |
| 19:00.                  | Zapatuak: 11:00.               |
| Domekak:                | <b>Mizpirualde</b>             |
| 11:30, 13:00.           | Lanegunak: 11:45.              |
| <b>Osintxu</b>          | Zapatuak: 17:30.               |
| Domekak: 12:30.         | <b>Antzuola</b>                |
| Zapatuak: 19:00.        | Domekak:                       |
| <b>Elosu</b>            | 09:00, 11:30.                  |
| Domekak: 10:30.         | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| <b>Ubera</b>            | <b>Uzarraga</b>                |
| Domekak: 10:30.         | Domekak: 10:00.                |
| <b>San Juan</b>         | <b>Elgeta</b>                  |
| Domekak: 11:00.         | Lanegunak: 09:00.              |
| <b>Elorregi</b>         | Zapatuak: 19:30.               |
| Domekak: 10:30.         | Domekak: 12:00.                |
- URTE-MEZAK**  
**Santa Marina (Sierbetan)**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**PILOTA SAILAREN ZOZKETA**  
Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan 1.095 izan da zerbakia saritua. Txartelaren jabeak pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratuko ditu. 2.767 zerbakiari, berriz, Infernukua tabernan lau lagunendako afaria eta 200 euro egokitu zaizkio. Saritutakoei 943 76 23 01 (Reyes Azkoitia) telefonora deitu beharko dute.

**INFORMATIKA IKASTAROAK KZGUNEAN**  
KZGuneak herritar guztientako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

**BKE: ZOZKETA**  
Bergara Kirol Elkarteak maiatzean egindako zozketan 1.731 zerbakia izan da saritua. Txartel irabazlea Belengua tabernan saldu zuten.

**TXIRRINDUZALEEN IRTEERA**  
Bergara Txirrindulari Elkarteak uztailearen 12an Neilako Lakuetara (Soria) joateko irteera antolatu du. Goizean Bergaratik irtengo dira eta han 180 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute. Izenematea 12 edo 13 egunetara kirol dendetan.

**JARDUNENAGENDA**

**TXALAPARTA IKASTAROA JARDUNEN ESKUTIK**  
Jardunek antolatuta, txalaparta ikastaroa izango da Arrizuriagan uztailearen 14tik 18ra, 18:00etatik 19:00etara. Jarduneko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, zortzi euro. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildiko okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Jokin Intza bergararra omendu zuen EAJk**

Jokin Intzak Bergarako EAJren omenaldia jaso zuen 1993ko uztailearen 11n. Xabier Arzallusek, Joseba Egibarrek eta Luis Mari Retolazak gerra ostean, erbeste-an, Intzak euskararen eta aberriaren alde egindako lana gorai-patu zuten. Ondorengo bazkarian 100 bat lagun elkartu ziren.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Malkarra”*

Leku oso aldapatsua.  
—*Idurixoko aitz ingurua, Idurixotik bera dagon zera, malkarra.*  
—*Elgetara malkarrak eta dare, puxkat.*



GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Martitzena, 1	<b>15 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 28	<b>31 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>1 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 25	26 °C 18 °C — l/m <sup>2</sup>
Eguena, 26	21 °C 17 °C — l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 27	20 °C 16 °C 0,8 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 28	31 °C 16 °C — l/m <sup>2</sup>
Domeka, 29	31 °C 15 °C 0,2 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 30	28 °C 17 °C — l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 1	24 °C 15 °C — l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**GOGORATZEKOA**

**PUNTU BERDE MUGIKORRA**

Debagoieneko Mankomunitateak Puntu Berde Mugikorra izeneko gune ibiltaria jarri du abian. Besteak beste, etxean erabiltzen dugun olio eta etxeko beste hondakin batzuk (bonbilla fluorescenteak, poltsikoko telefonoak, bateriak, toner kartutxoak, erradiografiak...) jasoko ditu zerbitzu berri horrek. Bergaran Oxirondo azoka ondoko plazan egongo da Puntu Berde Mugikorra, hileko azken zapatuan, 09:00etatik 13:00etara.



**%20 %30 %50**

**CRISTINA**  
Mutil eta neska

LEVI'S LOIS BIG-STAR

Arruriaga z/g (Burdiñate parean) 943 76 03 04

**BEHEKO TABERNA**

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

**SAN MARTZIAL/** Goizean goizetik hasiko da jaia, 09:30ean, hain justu, alboradarekin, eta 21:00etan amaituko da, jaitsierarekin

# San Martzialen erromeriak herritar ugari batuko ditu domekan, goizetik iluntzera

MONIKA BELASTEGI

Domekan San Martzialgo erromeria izango da; egun polita bergararrondako. Ohiturari eutsiz, San Martzialgo zelaian herritar ugari batuko dira goizean hasi eta gauera arte. Bestalde, astelehenean San Martzial eguna izan zen, eta jende asko batu zen letanian.

Santa Marina elizatik abiatu zen astelehenean letania San Martzialerako bidean. Herritar ugari batu ziren. San Martzialera iritsitakoan meza entzun zuten ermitan. Horren ondoren, txokolatea banatu zuten San Joxepe elkarreko kideek hurreratu ziren guztiendako.

Letanian herritar ugari batu baziren ere, etzi, domeka, gehiago elkartuko dira San Martzialgo erromerian. Goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak. 09:30ean, alborada egongo da Tolosako dultzaina jotzaileekin, Zumarragako trikitilariarekin, Los Incasables txarangarekin eta Udál Txistulari Bandarekin. Horren ondoren, 10:00etan, gurdi igoera egongo da; eta 11:00etan, meza nagusia San Martzialeko ermitan.

Mezaren ondoren, hamarretakoa egiteko tartetxoa hartu eta gero, dantza emanaldia egingo dute Xamatx dantza taldeko kideek, 12:00etan, zelaian. Eta Xamatxek bukatutakoan, ohiko soka eta aurrekua ikusteko aukera egongo da.

Dantzen ondoren, bertsoen txanda iritsiko da: Narbaiza eta Egileorrek bertso saioa egingo dute, eta bukatzen dutenean, abestea eta abesti herrikoiak gustuko dituztenek ahotsarekin zer egiteko kapaz diren erakusteko aukera ezin hobea izango dute kantina aurrean.

Horrekin goizeko ekitaldiak amaituko dira, bazkal orduari bidea egiteko. Aurten 290 mahai alokatu ditu Udalak bazkarirako, eta horri norberak jarritakoak gehitzen badizkiogu, domekan San Martzial mahaiz josita goitea ez da harrizkoa izango.

## ARRATSALDEAN KIROLAK ETA DANTZA, BESTEAK BESTE

Arratsaldean umeendako jokoa egongo dira 16:00etatik aurrera, eta 18:00etan, helduendako herri jolasak hasiko dira.

Sokataran eta txingetan jarduteko aukera egongo da. Sokataran zortzi lagunek osatutako taldeak beharko dira. Tiratzaileek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte, eta gehienez zortzi talde egongo dira gizonetako eta beste zortzi emakumetakoetan. Izenematea egunean bertan egingo da, 17:00etan.

Txingen kasuan, gizonetako 50 kilokoak izango dira



Goizeko mezaren eta hamarretakoaren ondoren, ohiko aurrekua eta soka dantzatzeko dituzte.

MONIKA BELASTEGI



Dantza erakustaldia amaitutakoan, abestea gustuko duenak kantinara hurrera daiteke kantu herrikoiak abestera.

ARTXIBOA

eta emakumetzkoendako, berriz, 25 kilokoak.

Nagusiendako jokoekin batera, erromeria hasiko da Aranzabal taldearekin, eta gustuko duenak hortxe izango du dantza egiteko aukera. Bestalde, bolatokia zabalik egongo da egun osoan.

Azkenik, 21:00etan izango da jaitsierako txupinazoa. Jaitsiera txistulariek, dultzaina jotzaileek, trikitilariak eta txarangak alaituta izango da, eta bukaera San Martin plazan emango zaio.

## ASTE BUKAERAN ERE EKITALDIAK

San Martzialeko jaien barruan beste ekitaldi batzuk ere egongo dira aste bukaeran barrena. Hala, gaur, egubakoitza, Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du San Pedro parrokian, 20:00etan. Orkestrak lau lan egingo ditu: G.F. Händel-en *Concerto Grosso Opus 6*; F. Shuber-en *Sinfonia en si menor*; C. Saint-Säens-en *Danse Macabre*; eta H. Shoren *The lord of the rings*. Zuzendari lanetan Alfredo Gz. Chirlaquek jardungo du.

Bihar, zapatua, umeendako bonba japoniarrak egongo dira, 19:00etan, San Martin plazan, eta horren ondoren, buruhandien eta erraldioen kalejira Kobok gaita jotzaileek lagunduta. 20:00etan, Bergarako Orfeoak eta Musika Eskolak emanaldia egingo dute Mariaren Lagundiko elizan, eta 22:30ean, Goloka taldeak *Berpiztuak* lana egingo du, 22:30ean, San Martin plazan.

## Ibilgailuek kontuan hartu beharrekoak

Bergarako Udalak aditzera eman duenez, San Martzial egunerako autobus zerbitzua egongo da egunean barrena. 09:45ean hasiko da, eta lehenengo bidaian Mizpirualde egoitzako nagusiak eramango ditu San Martzialera. Horren ondoren, etengabe jardungo du joan etorrian, 20:00ak arte. Santa Marina ondoan hartu beharko da autobusa, eta geratu ere leku berean egingo da.

Bestalde, domekan ezin izango da zelaira autoz sartu, jeneroa daramatenek

izan ezik. Hala eta guztiz ere, eraman beharrekoak eraman eta gero, ibilgailua kendu egin beharko dela ohartarazi dute Udaletik.

Horrekin batera, 21:00etatik 22:00etara bitartean bidea itxi egingo dutela aurreratu du Udalak, San Martzialgo jaitsiera dela-eta.

Jaitsiera uneari dagokionez, urik ez botatzeko ohartarazi dute Udaleko iturriek, musikarien tresnak hondatu egiten dira-eta.



MONIKA BELASTEGI

Eguaztenez Usondo parkean izan ziren taldeetako batzuk. Aurpegia margotu eta gustura jardun zuten jolasean.

**UDALEKUAK/** Martitzenean hasi eta uztailearen 30era arte egongo dira zabalik

## Uztailean 370 ume inguru ibiliko dira udalekuetan

MONIKA BELASTEGI

Uztaileko hilabetearekin batera, umeendako udalekuak hasi dira. Martitzenean, uztailearen 1ean, zabaldu eta 30era bitartean 370 ume inguruk jardungo dute udalekuetan. Goizez izango dira, eta umeek ondo zainduta jolas egiteko aukera izango dute.

Hamabost urte inguru dira uztaileko Udaleku Irekiak antolatzen dituztela. Helburu garbi batekin sortu zituzten, herriko neska-mutikoei udako oporrak hartu eta gero giro euskaldunean ondo pasatzeko aukera eskaintzea, naturarekin harremanean eta natura errespetatuta. Betiere, gai-

nera, zaintzaileen begiradapean ondo zainduta. Gainera, guraso askok etxetik kanpo lan egiten dutela kontuan izanda, horiei ere laguntza eskaintzeko helburua ere badute uztaileko udalekuek, "seme-alabak gustura eta lagunekin jolasean daudela jakiteak lasaitasuna ematen duelako", azaldu du Ainhoa Arbelaitz udalekuetako arduradunak.

### 2 ETA 12 URTE ARTEKO NESKA-MUTIKOENDAKO

Martitzenean, uztailearen 1ean, hasi ziren udalekuak, eta, ohi bezala, neska-mutiko askok eman dute izena; 370ek, hain justu ere.

Adinari dagokionez, 2 urtetik hasi eta 6. mailara bitarteko umeak daude. Antolaketa kasuan,

adinaren arabera taldeetan banatzen dituzte, eta hamar ume-ko begirale bat dute, txikitxoetan izan ezik: 2 urteko umeei dagokionez, 20 daude aurtengo udalekuetan, eta hiru begiralek dihardute eurekin.

Goizeko hamarretan hasi eta 13:00ak arte izaten dira udalekuak. Begiraleek aurrez zehaztutako programaketa izaten dute, eta horixe garatzen joaten dira uztailean barrena. Ainhoa Arbelaitzek zera esan du: "Ia ekintza guztiak gelatik edo eskolatik kanpo egitea nahiago izaten dugu: txango txikiak, ur jolasak, altxorren bila... denetariakoak. Dena dela, eguraldiaren arabera ere izaten da hori. Ea aurten iazko uda baino hobea egiten duen".


## Irailean hasiko da Udala Santa Marinaren ingurua egokitzen

MONIKA BELASTEGI

Uztailearen 18an zabaldu eta 20an inauguratuko duten arren, ordu-rako ez dira Santa Marina elizaren gaineko lanak guztiz bukatuta egongo. Udalak eta elizak hitzartu zutenaren arabera, Udalarik dagokio Santa Marina inguratzen duen espaloi antzekoa konpontzea. Victoriano Gallastegi alkateak esan duenez, egokitzen horiek egiteko proiektua egin da dago, eta lehiaketara ateratzeko baldintzak prestatzen dihardute. Irailean izango da lehiaketa, eta segidan hasiko dira lanak. Horrekin batera, Oxirondo plaza

za errekatik bereizten duen harrizko horma ere bukatzeko dagoela aurreratu du alkateak: markesina berritik Kataibiako etxeak bukatu arteko tartea egitea falta da, hain justu. Horrekin batera, etxeen aurreko aldea ere txukunduko dutela aurreratu du Gallastegik. Konponketa horiek guztiak egiteko proiektua ere egin da dagoela azaldu du eta horiek ere uda ondoren aterako dituztela lehiaketara.

Bestalde, Oxirondo plaza eta Zurraderoko zubia lotzeko asmoa bidea egitekoak baziren ere, proiektua atzeratu egin dela azaldu du Gallastegi alkateak.



MONIKA BELASTEGI

Oxirondo plaza eta Zurraderoko zubia lotuko dituen bidea atzeratu egin da.

## LABUR

### Turismo Bulegoa itxita egongo da uztaileko lehenengo hiru domeketan

Turismo Bulegoa itxita egongo da etzi, domeka, eta datozen bi domeketan ere bai, hau da, uztailearen 13an eta 20an.

Gainerako egunetan ohiko ordutegia izango du: asteleheneetik egubakoitzera, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era; domeketan eta jaiegunetan, 11:30etik 14:30era. Bestalde, egunero bisitaldi gidatuak egongo dira, doan.

## Ostetako bidea asteleheneetik zabalik


MONIKA BELASTEGI

Astelehenean zabaldu zuten Ostetako bidea; Xabier Maria Muni-be plaza berria Iparragirre aldearekin lotzen duen kalea, hain justu ere.

Herriaren alde zaharra Ibar-garaiko zona berriarekin lotzen du bidetxo horrek, eta, horren ondorioz, herritar ugari erabiliko du. Hain zuzen ere, ekainaren erdialdera hasi zituzten lanak: zorua konpondu dute, argiteria berria jarri dute, baita Errege Mintegia inguratzen duen harrizko horma eutsi eta sendotu eta pixka bat jaitsi ere.

### AURRERAGO HOBEKUNTZA GEHIAGO

Zorua eta horma konpondu eta farola berriak jartzea Ostetako bidean egingo dituzten lehenengo lanak dira. Victoriano Gallastegi alkateak zera esan du: "Ireki egin dugu bidea oinezkoendako; dena dela, hobekuntza gehiago egingo ditugu". Udalaren asmoa da bidea zabalagoa egitea; Iparragirre kalearen antz handiagoa ematea, azken baten. Hori, baina, aurrerago izango da; izan ere, horretarako Novedades zinemaren eraikina bota egin beharra dago: "Eta hori horrela izateko beharrezko urratsak ematen dihardugu".



MONIKA BELASTEGI

Iparragirre aldea Munibe eta San Martin plazekin zuzenean lotzen ditu Ostetako bideak.

**JAIAK** / Autoen bedeinkazioa uztailearen 13an izango da, 12:00etako meza nagusiaren ondoren

# Gaur, egubakoitza, hasi eta eguenean segituko dute San Kristobal jaiek


MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, hasiko dira San Kristobal auzoko jaiak, eta gaurko ekitaldien ondoren, datorren eguenean, San Kristobal eguenean, segituko dute jaiek. Urteroko auto bedeinkapena, berriz, datorren domekan izango da, uztailearen 13an.

San Kristobal auzoa jaietan murgilduko da gaur, egubakoitza. 22:00etan hasiko dira jaiak, ohiko pinu sartzearekin, etxafuego jaurtiketarekin eta kanpai errepikapenarekin. Gero, auzokoendako txokolate jana egongo da.

Gaurko ekitaldien ondoren, eguenean, hilaren 10ean, segituko dute San Kristobal jaietako ospakizunek: 12:00etan, meza nagusia egongo da eta gero, auzoko erretiratuendako luntxa, Haritz eta Enaitz trikitilariak lagunduta. 23:00etan, berriz, Gardoki trikitilariak alaitutako erromeria egongo da.

**UZTAILAREN 13AN AUTOEN BEDEINKAZIOA**  
Eguenetik zapatura egingo dute salto jaietako ospakizunek. Uztailearen 12an, zapatua, Arkaitz Allurerekin erromeria egongo da, 23:00etan, eta hilaren 13an, domeka, ohiko auto bedeinkapena, 12:00etako meza nagusia bukatu



Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak, eta autoen bedeinkazioa datorren domekan izango da, uztailearen 13an.

laren 12an, zapatua, Arkaitz Allurerekin erromeria egongo da, 23:00etan, eta hilaren 13an, domeka, ohiko auto bedeinkapena, 12:00etako meza nagusia bukatu

eta gero. Bedeinkazioaren ondoren, luntxa egongo da auzoko erretiratuendako, baita Jarduneko bertso eskolako kideen bertso saioa ere.

Azkenik, San Kristobal jaiak amaitzeko, Haritz eta Enaitz trikitilariak alaitutako erromeria egongo da, eta umeendako jolasak ere bai.

## LABUR

### Erromesaldia Arantzazura eta bisita Loiolara

Uztailearen 25ean erromesaldia izango da Arantzazura eta gero bisita Loiolako Santutegira. Irteera 09:30ean izango da, autobus geltokitik. Erromesaldia denez, autobusa Zelai-Zabal jatetxearen parean geratuko da, Arantzazuraino oinez igotzeko. Hala eta guztiz ere, nahi duenak autobusez igotzeko aukera izango du. 11:00etan, penitentzia komunitarioa egongo da Basilikan; 12:00etan, meza nagusia eta 14:00etan, erromesen bazkaria Hospederian. 16:15ean, berriz, bideoa egongo da eta 17:00etan, Ama Birjinari agurra. Horren ondoren, 17:30ean, Loiolako Basilikarantz abiatuko da autobusa. Itzulera 20:00etan izango da.

Autobuserako txartelak sei euro balio du eta autobus geltokitik irten eta gero geldialdi bakarra egingo du, Ozaetan, Belengua tabernaren parean. Erromesen bazkariari dagokionez, 13,5 euro balio du. Autobuserako txartelak honako leku hauetan eros daitezke: Agirrebeña jatetxean, Zerkauzi janari dendan eta Zatoia arropa dendan.

**Publizitate arloan lan egiten duen Gipuzkoako enpresa berri batek honako lanpostu hauek bete behar ditu:**

### 1.- Komertzial sarearen koordinatzaile/arduraduna. Erref.: S.Ard.

**Bilatzen dugu:**  
Giza harremanetarako gaitasuna duen pertsona dinamikoa.  
Lan taldeen gidaritzan edo publizitate salmentan eskarmentua duena.  
Helburuekin lan egiten ohitua dagoen pertsona.

**Eskaintzen dugu:**  
Euskalgintzako proiektu berri batean parte hartzeko aukera.  
Euskal Herri osoko komertzial sare baten gidaritzan.  
Lan kontratua eta gizarte segurantzako kotizazioa.  
Oso soldata interesgarria: finkoa+komisioak+sariak

### 2.- Publizitatea saltzeko komertzialak Gipuzkoan. Erref.: Kom.

**Bilatzen dugu:**  
Giza harremanetarako gaitasuna duen langilea.  
Pertsona dinamikoa.  
Mundu komertzialerako bokazioa duen pertsona.


**Eskaintzen dugu:**  
Euskalgintzako proiektu berri batean parte hartzeko aukera.  
Lan kontratua eta gizarte segurantzako kotizazioa.  
Oso soldata interesgarria: finkoa+komisioak+sariak.  
Enpresan promozionatzeko benetako aukerak.

**Bietan ezinbestekoa:**  
Euskaraz ondo hitz egitea eta idaztea.  
Gidabaimena eta autoa izatea.

Interesatuok bidali lehenbailehen zuen curriculum, argazkiarekin, honako helbide honetara:  
IRAGARRI S.L.

Gudarien etorbidea, 29 • 20140 ANDOAIN- GIPUZKOA

Gutun-azalean eta curriculumean lanpostuaren erreferentzia adierazi.



## JARDUNEKO TALDEEN JAIALDIA

Jardun Elkarteko gaztetxoek ikasturte amaierako jaialdia egin zuten Zabalotegiko aretoan. Txapligu taldea, Txiskrilabi taldea, Bertso Eskola eta Trikiti Eskolako neska-mutikoez txisteak, koreografiak, bertsoak, kantuak eta Trikiti Eskolaren ereserkia estreinatu zuten jendaurrean. 175 lagun bertaratu ziren jaialdia ikustera, eta, ikusleez gain, taula gainean jardun zuten artistek primeran pasatu zuten. Ikasturtea amaitzeko modu ezin hobea... Irailera arte, ondo pasatu!!!



## ARROPA DENDA BERRIA

Datorren astean arropa denda berria irekiko dute Fraisko-zurin: Leize. Jabeak hiru denda dauzka: Egian, Grosen eta Pasaian. Bergarako datorren astean irekiko du eta neska zein mutil gazteendako arropa modernoa salduko du. Era berean, datorren astean Arrasaten beste denda bat irekiko du. Debagoienan bi denda zabaltzeko arrazoia da Bergara eta ingurua ondo ezagutzen dituela eta jende gazte asko dagoela.

## TOURREKO KINIELA ETA KAMISETAK

Datorren apirilaren 5ean Euskal Herriko Itzulia Bergaran hasiko dela eta, herriko antolaketa batzordeak Tourreko kiniela antolatu du. Zerbaki arabera, partaideek 15 txirrundulari aukeratu beharko dituzte eta Tourra bukatzen denean puntu gehien lortzen duenak eskuratuko du lehen saria: jasotakoaren %50; bigarrenarendako, berriz, %30; eta hirugarrenarendako, %15. Txartelak egiteko epea domekan bukatuko da, 15:00etan. 20 euroren truke, Usoa eta Avenida tabernetan edo 619 73 95 07 (Mikel) 656 71 42 42 (Kaxeta) telefonoetara deituz bete daitezke. Bestalde, Tourra ikustera joango diren zaleendako kamisetak atera dituzte. Laranja kolorekoak dira eta zera irakur daitezke atzeko aldean: "Euskal Herriko Txirrundulari Itzulia.2004. Bergara". Zapatuan, San Martin plazan eta domekan, San Martzialen jarriko dituzte salgai, 6 euroren truke. Argazkian, Aitor Narbaiza txirrundularien kamisetarekin. Euskaltel taldea animatzera joateko kamiseta dotorea...



## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09



Musika eta liburuak

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxe: 943 76 23 52  
bergara@megadenda.com <http://www.megadenda.com>

euskalherriko elkarlanean fundazioa

**bilintx**



943 76 20 61  
BERGARA

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

## OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



MINGAINARITIRAKA



Iñigo  
Almortza

AUTO SALTZAILEA

Saltsa guztietan ibiltzen den horietakoa da Iñigo (27 urte). Betizu Bergarako Zezenzaleen Elkartekoa da, Euskadiko Rally Txapelketan dihardu eta domekan, San Martzialgo erromerian, epaile lanak egingo ditu arratsaldeko herri jolasetan.

San Martzialgo gauza onena? Eta txarrena?

Onena, egoten den giroa; nire iritziz, herriko jai politena da. Gauza txarrena, berriz, hurrengo eguneko zikinkeria.

Eguerdiko dantzak eta bertsoak ala arratsaldeko jolasak? Denak dauka bere xarma...

Txingetan parte hartzeko gertu?

Eeeeeez!!! Ausartendako eta indartsuendako da hori...

Erromeria ligatzeko jai aproposa dela esan ohi da...

Ados nago, baina nik *kristoren tronpak ligatu* izan dut bakarrik...

Ardorik gabeko San Martzialik posible izango litzateke?

Ez dakit, alkohola eskatzen duen jaia da, nire iritziz. Alkohol barik ez litzateke berdina izango.

Zein menu izango duzue domekan?

Ideiarik ere ez. Koadrilako nesken lana da hori... (Barreak).

Zu zeu sukaldari ona zara?

Sukaldea ez zait batere gustatzen.

Astlehenean biharamuna kentzeko errezetarik bai?

Ni San Ferminetara noa...

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Neskarekin egon, ehizara joan, rallyak ikusi...

Auto lasterketetan, makinak ala gidariak agintzen du?

Makinak gidaria menderatzen duenean, gauza txarra.

Gidari gustukoena?

Euskaldunen artean, Iñaki Alberdi eta Aitor Zabaleta.

Lagunekin-eta kopilotu joateko pazientziarik baduzu?

Lo hartzen dut...

Aukeran, zein auto gidatu nahi zenuke?

Mitsubishi Evo VII autoa gustura hartuko nuke.

Udan, hondartza ala igerilekua?

Nahiago dut mendira joan, txakurrarekin.

Nork irabaziko du Tourra?

Euskaldunen batek irabaztea gauza ederra izango litzateke.

Zer egingo duzu abuztuko oporretan?

Egun batzuk Laredon egingo ditut eta gero Burgos eta Errioxa aldean ehizan ibiliko naiz, galeperren denboraldia hasten da-eta.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Ainhoa Bikuña

AFRIKA HEGOALDEA/ 2001eko abuztuan

Interneten Namibiako bidaia agentzia batekin lan egiten zuen Madrilgo agentzia bat topatu nuen, eta Afrika hegoaldera bidaia egin nuen orain dela bi urte. Antolatutako bidaia zen, eta hamar lagun ginen: argentinarrak, valentziarrak, katalanak eta euskaldunak.

Ia hilabete osoko bidaia zen. Zimbabwen, Botswanan eta Namibian ibili ginen. Txofer batekin eta gidari batekin lagunduta joan ginen, eta ondo gertatutako kamioi bat erabili genuen. Jatekoa guk geuk prestatzen genuen eta kanpadendetan egiten genuen lo.

Madrilatik irten eta Londresen eta Johannesburgon geldialdia egin ondoren, Victoria Fallsko aireportura iritsi nintzen, eta han batu nintzen bidaia-ko beste lagunekin. Ur-jauziak benetan ikusgarriak dira, eta han dago Zimbabweren eta Zambianen arteko muga. Ur-jauzien inguruan etxe kolonialak eta txabolak tartekatzen dira, eta kontraste handiko paisaia da.

Gu izan ginen sasoi lehorra zen, eta ura hainbat lekutan pilatzen zenez, animaliak hara hurbiltzen ziren edatera; besteak beste, elefanteak, errinozontreak eta hipopotamoak gertutik ikusi genituen.

Zimbabwetik Botswanara jo genuen, eta ia herrialde osoa zeharkatu genuen. Parke natural asko



*"Victoria Falls ur-jauzien inguruan etxe kolonialak eta txabolak tartekatzen dira"*


*"Botswanako Kalahari basamortuan boskimanoak bizi dira"*

dago han: animaliak ikusteko aukera paregabea eskaintzen duten sekulako lur eremu handiak daude. Chobeko Parkera, esaterako, errekatik sartu ginen egurrekin eginiko kanoa moduko batzuetan, eta gero parkea oinez ikusi genuen. Nahiko hurbiletik ikusi genituen jirafak, elefanteak, inpalak, lehoiak... Iluntze aldera eguzkia gorri-gorri ikustea gauza ederra zen. Zoragarria da hango aberastasuna natura eta fauna aldetik. Ingurumenarekin oso sentsibilizatuta daude eta primeran babesten dute. Hala ere, kontraesana dirudien arren, diru mordoia ordainduta oraindik badago ehizan egiteko aukera.

Kalahari basamortuan ere egon ginen, eta mugan Etosha parkea bisitatu genuen. Kalaharin boskimanoak bizi dira; urtetan leku batetik bestera ibili den tribua.

Namibian, berriz, iparraldean himbak bisitatu genituen, eta tea, fruta eta tabakoaren truke eurekin gelditzeko aukera eman ziguten. Ia-ia historiaurrean bizi dira, behiak besterik ez daukate, eta gauza bitxia zen elkarrenganako kuriositatea, haiek ez daudelako oso ohituta zuriak ikusten. Jendearekin eta naturarekin erabat gozatu genuen.

EDU MENDIBIL




Ainhoa Bikuña Chobeko Parkean ateratako argazkian.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



**ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A



LAGUNAK ELKARTEA

Argazkian Mongatxurra taldea, aurtengo Kopako eta Ligako txapeldunak.



LAGUNAK ELKARTEA

A Ze Flaxak txapeldunordeari zegokion trofeo jaso zuen zapatuko finalaren ostean.

## ARETO FUTBOLA

# Mongatxurra taldeak 6-3 irabazi zion A Ze Flaxari zapatuan, Ligako finalean

Mongatxurra taldeak Liga eta Kopa irabazi ditu aurtengo; zapatuan merezimendu osoz nagusitu zitzaion A Ze Flaxari

## EDU MENDIBIL

**Mongatxurra taldeak 6-3 irabazi zion A Ze Flaxa taldeari, Labegarrietako Areto Futbol Txapelketako Ligako finalean, zapatuan. Gauzak horrela, aurtengo Mongatxurra izan da nagusi, aurretik Kopako finala ere irabazi zuen-eta.**

Zapatuko Ligako finalean Mongatxurra taldeak hobeto jokatu zuen eta merezimendu osoz irabazi zuen partidua. Mongatxu-

rrak taldean honako hauek izan ziren jokoa: Julian Rodríguez, Patxi Osa, Ibon Agirre, Lauri Askargorta, Asier Elortza, Jon Alberdi eta Mikel Unamuno. A Ze Flaxaren partetik, berriz, Bittor Jiménezek, Patxi Vallejosok, Piti Rodríguezek, Jose Ignacio Luceñok, Juani Lópezek, Juan Luis Etxanizek eta David Maestrek jokatu zuten zapatuan.

Mongatxurra taldea aurreratu zen markagailuan, eta bana-koaren ondoren, atsedendira 3-1 joan zen aurretik Mongatxu-

rrak. Gol ederrak ikusi ziren finalean, eta Asier Elortzak ezker hankarekin lortutako 2-lekoak zaleen txalo zaparrada luzea merezi izan zuen. 5-1 jarri zen aurretik Mongatxurra, eta jarraian bi gol egin zituen A Ze Flaxak. Azkenean, 6-3ko emaitzarekin txapeldun izan genuen Mongatxurra. Txapeldunen partetik, Lauri Askargortak (2 gol), Ibon Agirrek (2) eta Patxi Osak lortu zituzten golak. A Ze Flaxaren golak, berriz, Bittor Jiménezek (2) eta Piti Rodríguezek egin zituzten.

*Pesca-k eman dizkigun datuen arabera, Mongatxurra taldeak 1991-92 denboraldian eskuratu zuen Liga azken aldiz. A Ze Flaxa taldeak, berriz, iaz Kopa eta Superkopa irabazi zituen eta 1996-97 denboraldian Ligako txapeldun izan zen. Aurtengo edizioan Mongatxurra taldeak Kopa eta Liga irabazi dituzte, ez da Superkopako finalik jokatu. Kopako finalean, ekainaren 6an jokatu zena, Mongatxurra taldeak 3-2 irabazi zion Bayer taldeari.*

## HURRENGO ALDIA, IRAILEAN

Labegarrietako Areto Futbol Txapelketaren hurrengo aldia irailaren 27an hasiko da. Izenematea zabalik dago dagoeneko, eta talde bakoitzak 170 euro ordaindu beharko ditu parte hartzearen. Ordainketa Euskadiko Kutxan irekitako kontuan (0090033922-2 zenbakia) egin daiteke. Datorren irailaren 17an taldeetako ordezkarien batzarra egingo da kulturara etxean, 18:30ean. Amaitu bertan aurtengo txapelketan 30 talde izan dira lehian.

## Herriko 28 lagun Quebrantahuesos proban

## E.M.

Bergarako 28 bizikletazalek hartu zuten parte joan den ekainaren 21ean jokaturako Quebrantahuesos proban. Aurtengoa probaren 13. aldia izan da eta 4.600 partaide inguru izan ziren Sabi-

ñanigoko irteeran. Proba antolatzen duen Edelweiss Txirrindulari Elkarteak Fernando Escartín txirrindulari ohia omendu zuen irteeran. Abraham Olanok ere hartu zuen parte lasterketan.

Irteera 08:00etan izan zen eta txirrindulariek 205 kilometroko

ibilbidea egin behar izan zuten, tartean Somport, Marie Blaque, Portalet eta Hoz mendateak zeheldu. Probaren egunean egin zuen beroak ibilbidea gogorragoa egin zuen: tenperatura maximoa 41 gradukoa izan zen eta batez bestekoa, 36 gradukoa.


## IBAN SANTURDE, IRABAZLE

Iban Santurde kantabriarrak irabazi zuen proba, 5 ordu, 59 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Edelweiss Txirrindulari Elkarteak emandako behin-behineko sailkapenaren arabera, Bergarako onena Jose Luis Taboada izan

zen. Taboadak zazpi ordu, minutu bat eta 54 segundo behar izan zituen proba amaitzeko. Garikoitz Arregik, Felix Igarzak, Jesus Martinek, Gorka Arrietak, Iker Herranek, Agustin Heisek eta Xabier Garitanok ere zortzi ordu-tik jaitea lortu zuten.

## Behin-behineko sailkapena

Postua	Izen-deiturak	Denbora	Postua	Izen-deiturak	Denbora
286	Jose Luis Taboada Ruiz	7:01:54	1.859	Jose Ignacio Aranburu Murgizu	8:33:17
343	Garikoitz Arregi Beraza	7:06:18	2.651	Antonio Verquizas Nieto	9:17:26
526	Felix Igarza Iñarra	7:19:24	2.688	Juan Ramon Irizar Zubizarreta	9:19:36
691	Jesus Martin Manzanal	7:27:32	3.064	Isidro Javier Rueda Santos	9:45:48
760	Gorka Arrieta Etxeberria	7:31:29	3.091	Aiert Lizarralde Ortiz de Zarate	9:48:34
970	Iker Herran Hernández	7:42:16	3.112	Ander Garitano Zuazolazigorraga	9:50:06
975	Agustin Heis Otero	7:42:35	3.376	Jesus Maria Olabarria Eguen	10:10:16
1.204	Xabier Garitano Gaminde	7:56:32	3.413	Aitor Uribesalgo Arando	10:13:54
1.410	Gorka Marzan Altube	8:06:52	3.712	Iñaki Acebo Acebo	11:00:23
1.573	Jose Ignacio Albisua Iraolagoitia	8:15:48	—	Benigno Menor Vila	Erretiratua
1.617	Iker Osa Alustiza	8:18:12	—	Felix Alzelai Mayo	Erretiratua
1.722	Jesus Sanz Segovia	8:23:50	—	Xabier Lazkano Bikendi	Erretiratua
1.799	Juan Luis Arregi Gorrotxategi	8:29:12	—	Arkaitz Ruiz de Lizaga Sampedro	Erretiratua
1.813	Juan Miguel Fernandez Pozo	8:30:30	—	Aitor Laskurain Zubia	Erretiratua



Argazkian, Aiert Lizarralde bergararra Portalet mendatea igotzen.

FUTBOLA

# Juanjo Arrieta: "Jokalarien portaera erabakigarria izan da mailari eusteko"


Javi Pérez eta Juanjo Arrieta entrenatzaileen gidaritzapean Eibarrek 2.A mailari eustea lortu zuen domekan

EDU MENDIBIL

Orain dela bi jardunaldi ezinezkoa zirudiena berriro lortu du Eibarrek. Ligako azken bi partiduak irabazi eta gero, eibartarrek 2.A mailan jarraituko dute. Juanjo Arrieta entrenatzailearen arabera, jokalarien portaera erabakigarria izan da mailari eusteko.

Bias Ziarretaren ordean, Eibarko zuzendaritzak Javi Pérez eta Juanjo Arrieta bikotea izendatu zuen Ligako azken bi partiduetan taldea zuzentzeko. Eibarrek bi partiduak irabazi beharra zeukan eta halaxe egin zuen, Leganes (0-1) eta Albaceteren aurka (2-0). Arrietak jokalarien jarrera gorai-patu du: "Moral aldetik nahiko baxu zeuden eta guztiek onena eman dute azken bi partiduetan. Fisiko eta moral aldetik jokalariek errekupeatzea izan da gure zeregin nagusia eta primeran erantzun du taldeak. Hori izan da mailari eusteko gakoa, zalantzarik gabe".

Aulkian gehiegi sufritu ez duela dio Juanjok: "Leganesen nahiko lasai egon nintzen eta domekan, Albaceteren aurka, partidua irabaztea errazagoa izango litzatekeela uste nuen, Albacetek ez zeukalako ezer jokoan. Hala ere, lehen gola egin arte nahiko urduri ibili ginen eta hortik aurrera gauzak hobeto ikusi nituen. Aspaldiko partez giro ikaragarria izan zen Ipuruan eta, zorio-



ENEKO AZKARATE

Ligako azken bi partiduetan Juanjo Arrieta Eibarren aulkian izan da, eta taldeak bi partiduak irabazi ditu.

nez, 2.A mailan jarraitzea ospatu ahal izan genuen. Egun ederra bizi izan genuen domekan".

**AMORRORTUREN FITXAKETA**

Arrietak Eibarko Kontseiluan lanean jarraituko du. Batzorde Teknikoan dihardu eta bera izan da Amorrortu entrenatzailea


fitxatu duena: "Orain dela lau hilabete hasi ginen berarekin harremanetan eta berehala sintonizatu genuen. Esan beharra daukat Bergaran fitxatutako gizona dela, fitxaketa Altxasun itxi genuen-eta. Gure proiektuarekin bat datorren gizona da, esperientzia handikoa, futbolaz asko

dakiena eta merkatua ondo ezagutzen duena. Taldearen oinarria proiektuio jokalaririk gazteak izatea nahi dugu, taldeak *patrimonio* bat izan dezan. Atzerritarak fitxatzeko aukera ez dugu baztertzeko. Helburua mailari eustea eta ahalik eta sailkapen onena lortzea izango da".

## Mongatxurrak-Guipuzcoana beteranoen finala gaur Ipintzan

E.M.

Mongatxurrak eta Guipuzcoana taldeak aurrez aurre izango dira gaur, egubakoitza, Ipintzako beteranoen mailako finalean, 19:45ean. Aurretik, hirugarren eta laugarren postua erabakitze-ko partiduan, A Ze Flaxak eta Txirriponek jokatu dute, 18:45ean. Bestalde, datorren astean Futbol 11ko final-laurdenak jokatu dira: eguaztenean, hilaren 9an, Mongatxurrak eta A Ze Flaxa taldeek neurtuko dituzte indarrak 19:15ean eta ondoren, 20:30ean, Bildurbarek eta Mongatxurrak taldeen arteko partidua izango da. Eguenean, beste bi partiduak jokatu dira: Arloteak taldeak Gore edo The Parpol izango du aurrean 19:15ean, eta Elgetako Fo Fo taldeak Txokokuak taldearen aurka jokatu du, 20:30ean.



E.M.

Futbol 11ko final-laurdenak izango dira eguaztenean eta eguenean.

**ARLOTEAK TXAPELDUN**

Gaztetxoaren mailako finalean Arloteak taldeak 6-1 irabazi zion Xukak taldeari joan den egubakoitzean, hilak 11, 19:30ean.

Martitzenean, hilak 8, senior mailako nesken txapelketako finalerdiak jokatu dira Ipintzan, 19:30ean eta 20:30ean. Finala egubakoitzean, hilak 11, 19:30ean.

## Balentiagak Euskadiko Igeri Txapelketan hartu zuen parte

EDU MENDIBIL

Ana Balentziaga gaztetxoak Euskadiko Infantil Mailako Igeri Txapelketan hartu zuen parte aurreko aste bukaeran. Estilo libreko 100 eta 400 metroko probetan bere marka hobetzea lortu zuen.

Santurtzin jokatuak Euskadiko Txapelketan lan bikaina egin zuen Ana Balentziaga gaztetxoak (13 urte). Estiloetako 200 metroko proban zortzigarren postuan sailkatu zen, 2 minutu, 55 segundo eta 55 ehuneneko markarekin; estilo libreko 400 metroko proban 12. tokian geratu zen (5:26:38) eta 100 metrokoan, azkenik, hamalagarrena izan zen igerilari bergararra (1:11:09). Esan bezala, 100 eta 400 metroko probetan bere marka hobetzea lortu zuen Balentziagak. Amaia Andueza Igeri Elkartearen entrenatzaile onatua

rrak zera adierazi digu: "Neguan gogor entrenatu du Ana eta progresioan ari dela erakutsi du Euskadiko Txapelketan".

**ZAPATUAN SAN JUAN SARIA**

Bihar, zapatua, Igeri Elkartearen 11 igerilarik Eibarren jokatu duen San Juan Sarian jokatu dute parte. Txapelketa 10:00etan hasiko da Ipurua Kiroldegian eta honako hauek izango dira Bergara Igeri Elkartearen ordezkariak: Nerea Anduaga, Maite Urzelai, Maria Galarraga, Goiatz Pérez, Neritzel Albisua, Eli Laskurain, Ana Balentziaga, Elisa Kortabarría, Olatz Fernández, Mikel Labaka eta Erik Iñarra.

Biharko txapelketa denboraldiko azkenetakoa izango da. Uztailean eta abuztuan hainbat itsas travesiatan hartuko dute parte igerilariak eta irailean hurrengo denboraldia gertatzen hasiko dira.

TXIRRINDULARITZA

### Neilako Lakuetara irteera uztailaren 12an

Bergarako Txirrindulari Elkarteak datorren zapatuan, uztailaren 12an, Neilako Lakuetara joateko irteera antolatu du. Goizean aterako dira autobusez Bergaratik, eta Neilako Lakuen inguruan, Sorian, 80 kilometro inguruko ibilbidea egiteko asmoa daukate. Iluntze aldera Bergarara itzuliko dira. Txirrindulari Elkarteak herriko zaleei irteeran parte hartzeko dei egiten die. Izenematea Arrizuriko i2 kirol dendan (943 76 41 63 telefono zenbakia) edo Zubietako Biciprecision Igar-tua dendan (943 76 11 21 telefonoa) egin daiteke. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena.

FRONTENIS

### Frontenis Txapelketako finala zapatuan

Bihar, zapatua, Frontenis Txapelketako finala jokatu da Angiozarko Arbiaska pilotalekuan: Xabier Albisua-Patxi Vallejo eta Carmelo Barcala-David Bellanco izango dira aurrez aurre. Aurretik, 09:00etan, hirugarren posturako partidua izango da: Jose Izquierdok eta Candido Hurtadok Kepa García eta Iñaki Sánchezen aurka jokatu dute. Frontenis Txapelketa joan den maiatzaren 17an hasi zen eta Debagoieneko hama-bi bikote izan dira lehian. Txapelketa Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria da.



Helduen bertso eskolako kideek hainbat emanaldi egin dituzte ikasturtean. Azkena San Kristobalen egingo dute, jaietan.

**BERTSOLARITZA/** Sortak eta bertsoan kontatutako antzerkia egingo dute, besteak beste

## Helduen bertso eskolako ikasleen emanaldia Pol-Polen

MONIKA BELASTEGI

Jardun elkarteko bertso eskolako kideek bertso antzerkia egingo dute gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:00etan. Emanaldian bertso sortak, antzerkia, segidillak eta hainbat ezusteko egongo dira. Eskolako 13 gaztek hartuko dute parte emanaldian.

Helduen bertso eskolako 13 kidek hartuko dute parte emanaldian, eta emanaldi benetan berezia egingo dute. Aurtengo ikasturtean hasi dira bertso eskolan, eta dagoeneko hainbat emanaldi egin dituzte. Gaur gauean egingo dutenak lau atal izango ditu: batetik,

gitarrekin lagundutako bertso sortak abestuko dituzte. Bertso horiek, gainera, ikasleek eurek egindakoak dira; bestetik, bertsoan kontatutako antzerkia egingo dute. Danel Goikolea arrastearraren *Bertso berriak Bilintxen oinordekoek jarriak*, hain justu ere.

Emanaldiaren hirugarren atalean bertso sorta ezagunak egingo dituzte; eta bukatzeko, segidillak. Hala eta guztiz ere, ezustekoren bat ere izan daitekeela aurreratu du Enaitz Alustiza bertso eskolako irakasleetako batek.

### DATORREN IKASTURTEAN GEHIAGO

Ikasturtea amaitzeko egingo duten azkenaurreko emanaldia

egingo dute gaur. Azkena San Kristobalgora jaietan egingo dute, hilaren 13an. Horren ondoren, oporrak hartuko dituzte datorren ikasturtera arte. Izan ere, segitu egingo du bai helduen bertso eskolak baita umeenak ere datorren ikasturtean, Enaitz Alustizak aurreratu duenez. Irakasle zein ikasleek ikasturtearen oso balorazio positiboa egin dutela adierazi du, eta azken horiek segitzeko asmoa dutela gehitu du.

Hainbat urtez desagertuta egon ondoren, irailean ekin zieten helduen eta umeen bertso eskolei. Jardun elkarteak bultzatu ditu, eta astean behin izaten dira eskolak. Izena emateko epea uda ondoren zabalduko dute.



### Myöhä jazz taldea, gaur, Espoioian

Udako Gauak kultura egitarauaren barruko lehen jazz emanaldia entzuteko aukera izango da gaur, 22:30ean, Espoioian, Myöhä taldearen eskutik. Finlandiatik datoz eta jazz modernoa egiten dute. Oso talde gaztea da: lau kideen batez besteko adina 19 urtekoa da. Hala ere, bost denboraldi daramatzate elkarrekin jotzen. Taldea honako hauek osatzen dute: Jori Huh-tala (kontrabaxua), Kalevi Louhivori (tronpeta), Joonas Leppänen (bateria) eta Tuomas Turunen-ek (pianoa). /M.B.

## Goloka antzerki taldearen emanaldia bihar, plazan

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, kale antzerkia ikusteko aukera egongo da San Martin plazan, 22:30ean. Goloka taldeak *Berpiztuak* lana egingo du.

Goloka taldea 1983an sortu zuten, eta ordutik hona kale antzerkia eta animazioa lantzen jardun dute. Urteotan askotariko ikuskizunak sortu dituzte, umei eta nagusiei zuzendutakoak, eta horrez gain, euren tailerretik ate-

ra dira, besteak beste, Bilboko Ur Partzuegoaren panpina eta Nafarroa Oinez-ko eta Araba Euskarazko maskotak.

Hiru lagunek osatutako kale-jira da *Berpiztuak*: bikote batek eta auto-gidari batek hilobi mugikortu bat hartu eta zerraldia herriz herriz mugitzen jardungo dute. Parrandazale amorratuak dira, jairik jair ibiltzea gustatzen zaie, baina heriotzak eramango ditu. Eurek, baina, ez dute heriotza onartuko.

## Orfeoiak eta Musika Eskolak emanaldia egingo dute bihar

MONIKA BELASTEGI

Mariaren Lagundiako elizan izango da, 20:00etan, Bergarako Orfeoiak eta Musika Eskolak bihar, zapatua, egingo duten emanaldia.

Ikasturteari amaiera emango dion emanaldia izango da, eta elkarrekin jardungo dute. Emanaldian bost lan egingo dituzte: lehenengo lau lanetan hainbat bakar-

larik pianoaren laguntzarekin abestuko dute. Azkenekoan Musika Eskolako Soka Taldeak eta Bergarako Orfeoiak *Oda a Santa Cecilia* lana egingo dute.

Horrez gainera, Lausardi Koru Sinfonikoak -Bergarako Orfeoiak eta Arrasateko Goikobalu Abesbatzak osatzen dute korua- emanaldia egingo du, Bakioko elizan uztailaren 12an, 20:00etan.

## Kontzertuaren egitaraua

**BARCAROLA, J. Offenbach**  
Abeslariak: Naroa Alberdi, Loinaz Mosteiro  
Pianoan: Maria Jesus Ugalde

**SOUS LE DÔME ÉPAIS, L. Dehher**  
Abeslariak: Argiñe Agirrezabal, Nere Ibarra  
Pianoan: Jasone Cámara

**SANTA MARIA, W.A. Mozart**  
Abeslariak: Isabel Juldain, Miren Azkarate,  
Joseba Iparragirre, Carlos Etxaniz  
Pianoan: Maria Jesus Ugalde

**QUINTETO DE LA FLAUTA MAGICA, W.A. Mozart**  
Abeslariak: Isabel Juldain, Miren Azkarate, Nere Ibarra,  
Joseba Iparragirre, Karlos Etxaniz  
Pianoan: Maria Jesus Ugalde

**ODA A SANTA CECILIA, H. Purcell**  
Parte hartzaileak: Bergarako Orfeoiak eta Musika Eskolako soka taldea  
Zuzendaria: David Azurza

## KULTURAPILULAK

### Jardunek uztaileko antolatutako Txalaparta ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Jardun euskara elkarteak Txalaparta ikastaroa antolatu du uztaileko. Uztailearen 14an hasi eta 18ra arte iraungo du ikastaroak. 18:00etatik 19:30era bitartean. Elkarteko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, zortzi euro. Izena jardun elkartearen bulegoan eman beharko da, edo 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakietan.

### Beart elkarteko ikasleek margo erakusketa zabaldu dute kultura etxean

Beart artisten elkarteko ikasleek erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean. Uztailearen 13a bitartean egongo da zabalik eta elkartearen diharduten ikasleen hainbat lanek osatzen dute.

Erakusketaren ordutegia honakoa da: astelehenerdik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

GUREGAIK/ JARDUN

# Txiskrilabi taldeak amaitu du ikasturtea

AINTZANE IRIZAR

**lazko urrian sortu zuten taldea, eta izen berezi horixe jarri zioten, Txiskrilabi. Ikasturtea amaitu dute dagoeneko, baina hurrengo urteari begira taldearekin segitzeko asmoa erakutsi dute.**

Jardun euskara elkartearen baitan sortu zuten gaztetzoko talde hori. 12 eta 16 urte arteko 40 bat gaztetzok osatzen dute Txiskrilabi taldea.

Jarduneko arduradunek ikusten zuten adin tarite horretako neska-mutikoendako ez zegoela aukera handirik herrian. Gainera, Jarduneko aisialdi taldeko umeek, behin 12 urte beteta, ez

zuten talde horietan segitzeko aukerarik, eta gaztetzok eurek ere taldea osatu nahi zuten. Aipatutako arrazoi horientatik guztiengatik sortu zuten talde berri hori.

Ikasturtean barrena era guztietako ekintzak egin dituzte Txiskrilabikoek: irrati lantegia, sexu lantegia, eztabaida taldeak osatu eta hainbat gai landu, eskulanak, irteerak... Gaztetzok eurek proposatutako ekintzak egin dituzte, begiraleekin lankidetzan antolatuta.

Ikasturtearen oso balorazio positiboa egin dute Jarduneko eta Txiskrilabiko arduradunek, eta, era berean, datorren ikasturteari begira lanean segitzeko asmoa erakutsi dute.



Txiskrilabiko kideak Jardunek orain dela bi aste egin zuen jaialdian.

LOTSABARIK/ Amaia Beistegi

# “Uda garai ona da ligatzeko”

AINTZANE IRIZAR

**Eskolak bukatu berri ditu Amaiak, eta dagoeneko hartu ditu oporrak. Laster Arkitekterako ikasketak hasiko ditu, eta bere ametsa da ikasketa horiekin lotutako lanen bat topatzea.**

**• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Jarduera gehiago antolatuko nituzke; orain, gainera, igerileku txiki horrekin eta zinema barik, behar handiagoa dago.

**• Zure karpentan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Lagun batek Holandatik bidalitako postal bat.

**• Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Txutxu-mutxuen gaineko saioak ez zaizkit batere gustatzen; *Los Serrano* telesaila, berriz, oso gustuko dut.

**• Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?**

Pocholo. *Siete vidas*-en Sole-ren papera egiten duen aktorea, berriz, asko gustatzen zait.

**• Zerk amorratzen zaitu?**

Berekoikeriak.

**• Zer estimatzen duzu besteengan?**

Beharra izanez gero lagun egiteko gertu egotea.

**• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Osasunari eta lagunei.

**• Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Oso alai naiz; akatsa, berriz, lotsati samarra naizela.

**• Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Jaietan, batez ere, ligatzen dugu; garai hau, uda parte, garai ona izaten da.

**• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**

Beltzarana, parrandazalea eta jatorra.

**• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Indiara, lagunen batekin.

**• Etorkizunerako amets bat?**

Ikasketekin lotutako lanpostua aurkitzea. Arkitektura ikasketak hasiko ditut datorren ikasturtean.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Eskulanak egitea • LIBURU BAT: 'Iraganean galdua', Abelin Linazisororena  
FILM BAT: 'Pretty woman' • MUSIKA TALDEA: Betagarri • KIROL TALDEA: Reala

E, TXO!

**GAZTE INFORMAZIO GUNEAK ORDUTEGI BERRIA DAUKA**

Uztailan eta abuztuan ordutegi berria izango du Gazte Informazio Guneak. Honakoa izango da, hain zuzen ere, ordutegi berria: eguenetan, goizez eta arratsaldez egongo da zabalik, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Egubakoitzetan, berriz, 09:30etik 13:30era egongo da zabalik.

Irailen ohiko ordutegiari helduko dio berriro gazteendako bulego horrek.

Bestalde, udari begira txartelak atera nahi dituztenei gogorazi nahi diete informazio guneak arduradunek txartel horiek lehenbailehen ateratzea komeni dela, uztailaren 24a baino lehen, hain justu ere.

**EUSKO JAURLARITZAREN BEKA DEIALDIA**


Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko 25 beka emango ditu Eusko Jaurlaritzak.

Beka horiek lortzeko beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle izatea, 32 urte baino gutxiago izatea eta bekarekin lotutako unibertsitate titulua izatea. Uztailaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira eskaerak. Jaurlaritzaren webgunean topatuko duzue informazio zabalagoa, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) webgunean, hain justu ere.

**OPORRETAKO ARGAZKIEN LEHIAKETA**

Ermuko kultura etxeak oporretako argazkien lehiaketa antolatu du. 1973a eta 1988a bitartean jaiotakoek parte har dezakete. Argazkiek koloreetan izan beharko dute, eta lanak aurkezteko epea urriaren 9an bukatuko da.

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ZAHARRAKBERRI

# Txokolate jana San Martzialen, erretiratuen eskutik

EDU MENDIBIL

Astelehenean, San Martzial egunean, herritar ugari hartu zuten parte letanian. Goizeko zapi eta erdietan hasi zen igoera, letania erreztatuz, eta hara heldu ondoren Karlos Ostolazak meza esan zuen San Martzialgo ermitan. Aurreko urteotan moduan, ermita jendez gainezka egon zen. Mezaren ostean, San Joxepe erretiratuen elkarteak prestatutako txokolatea banatu zuten batutako artean. Hirurehun bat lagun elkartu ziren astelehenean San Martzialen, gehienak emakumeak. Eguraldiak ere lagundu zuen: goizean goiz euri tantaren bat edo beste izan bazen ere, letania hasi orduko ateri zegoen.

Txokolate beroa eta bizkotxoak hartu eta gero, solasaldirako tartea izan zuten bertaratuak, eta bederatzia aldera jaitzierari ekin zioten. San Martzial eguna izanik, erroskillak ere ez ziren falta izan. Hiru postu jarri zituzten astelehenean, eta San Martzialera joandako gehienak erroskillekin itzuli ziren etxera. Alicia Domínguezek eta Isabel Vallelek zera adierazi ziguten: "Batez ere tradizioagatik etortzen gara gaurko egunean. Erromeria egunean gehiago saltzen da, baina gaur etortzen den jendeak ere estimatzen ditu erroskillak".

Azken urteotan San Joxepe elkarteak bazkaria egin izan dute San Martzial egunean, baina aurten ez dute bazkaririk egin erretiratuek.



Mezaren ostean, San Joxepe elkarteak prestatutako txokolatea banatu zuten astelehenean San Martzialen.



Alicia Domínguez eta Isabel Valle erroskilla saltzaileak.



Ohiturari eutsiz, San Martzialera joandako gehienak erroskillekin itzuli ziren etxera.



## San Joxepekoak txapeldun


Onesimo Manzano eta Jose Mari Akizu bikoteak lehen saria lortu zuen Gipuzkoako Erretiratuen Arteko Tute Txapelketan, Altzan, joan den ekainaren 17an. Era berean, Antolin Marchena bigarren sailkatu zen Altzan jokaturako Xake Txapelketan. Probintzia osoko elkartetako ordezkariak izan ziren lehen Altzako San Martzial egotzan, eta partaideen artean giro ona izen nagusi. Argazkian, ezkerretik eskumara, Akizu, Marchena eta Manzano eskuratutako trofeoekin.

## LABUR

### Erretiratuen irteera Burgosera uztailearen 16an

San Joxepe elkarteak uztailearen 16an Burgosera joateko irteera antolatu du. Besteak beste, Burgosko Katedrala eta Mirafloresko Kartusia bisitatu dituzte. Bazkaldu Burgosen bertan egingo dute. Izenemateak 29 euro balio du eta izena emateko epea uztailearen 8ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso daitezke. Bestalde, uztailearen 15ean Osintxura ibilaldia egongo da: 17:00etan abiatuko dira erretiratuen elkartetik.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da Goi-Auzoko baserri horren izena?

GALDEDEBALDE

1.

Zein taldek alaituko du San Martzialgo erromeria domekan?

- A/ Goloka taldea.
- B/ Aranzabal taldea.
- C/ Alaitz eta Maider.

2.


Zenbat lagun dihardute Jardun elkarteko helduen bertso eskolan?

- A/ 13.
- B/ 22.
- C/ 8.

3.

Zeinekin batera zuzendu du Juanjo Arrietak Eibar futbol taldea Ligako azken bi jardunaldietan?

- A/ Jose Mari Amorrortu.
- B/ Javi Pérez.
- C/ Blas Ziarreta.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE MARI AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Mari! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Xabier Munibe plazan / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE ..... 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Kas Naranja

Bi litroko bi botila

1,75 €

291 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ESKULTOREBERGARARRAKGAUR

Cecilia Gómez

EDU MENDIBIL

Herriko zeramisten dekanoa Cecilia dela esan genezake; izan ere, 91 urte ditu eta Simon Arrieta Zeramika taldeko sortzaileetako bat da: "Carmen Montoyak eta biok sortu genuen taldea orain dela 33 urte. Donostiako Catalina de Erauso taldekoekin harremanetan jarri ginen, guri erakustera etorri ziren, eta ikastaroan parte hartu zuen talde hartatik sortu zen taldea". Buztinarekin lan egitea izugarri gustatzen zaiola diosku: "Eskuekin buztina lantzea eta hortik figurak sortzen ikustea sentsazio zoragarria da". Etxean erabiltzeko tresnak eta apaingarriak lantzen ditu: "Platerak, pitxerrak, lanparak eusteko euskarriak eta horrelakoak egiten ditut. Gehienetan buztina eta loza erabiltzen dut, eta eskulturako buztinarekin probatu nahi dut orain. Egindako lan ugari opari eman izan ditut, eta etxea zeramika-lanekin beteta dut".

Astean pare bat aldiz taldeak Zabalotegin duen lokalera joaten ahalegintzen da, eta egin berri duten erakusketan sei pieza erakutsi ditu. Buztinlariaren ezinbesteko dohaina pazientzia dela dio Cecilia.

*"Eskuekin buztina lantzea eta figurak sortzen ikustea sentsazio zoragarria da"*



E.M.

DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ETXAGI  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

KEROS

Markogintza  
tailerra

Espoloia 4, BERGARA  
943 76 11 68

LAKET

gizon & emakume

Barrenkalea 35  
BERGARA

KONDE  
PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



BERGARA  
**Jone Mujika**  
Uztailearen 5ean, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Maitane, ama eta aita.



BERGARA  
**Shaila Murillo**  
Ekainaren 25ean, 15 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak eta Ainhoa.



BERGARA  
**Gorka Márquez**  
Uztailearen 5ean, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Elisa, Mikel eta Julen.



BERGARA  
**Jon Ander Roman**  
Uztailearen 7an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Naiara.



BERGARA  
**Asier Lakuntza**  
Uztailearen 8an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Josu Zalakain**  
Uztailearen 2an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Olaia.



BERGARA  
**Marisol Losada**  
Uztailearen 4an,  
urtebetetzea.  
Zorionak! Gurasoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:**  
Berrigara, Irizar Jauregia,  
Barrenkalea 33  
**Antzuola:**  
Udal Liburutegia,  
asteleheneretan  
17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:**  
Erosle-Baltzongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Plater  
konbinatuak  
Oilasko erreak  
eramateko



Simon Arrieta plaza 2A behe ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

**GOIERRI**  
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



#### ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19  
**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13  
**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13  
**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23  
**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46  
**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95  
**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77  
**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88  
**CAVIGLIA Silvana S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54  
**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65  
**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69  
**TRIPALDI Enrike** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

#### DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olaaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71  
**BASTERRETXE, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

#### HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### HORTZ-PROTESIKOAK

- MARTINEZ Begoña** Bidekurutzeta 10. 943 76 39 21

#### MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43  
**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78  
**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

#### MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

#### PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84  
**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80  
**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13  
**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

#### YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 4a / 164. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Gazteek Kalebarrengo lokala laga dute, batzarrean halaxe erabakita

AINZANE IRIZAR


Aurreko asteko egubakoitzean batzar orokorra egin zuten gazteek, Antzuolako Gazte Asanbladak deituta. Hantxe erabaki zuten Udalak emandako lokala lagatzea. Erabaki horren atzean Udalarekin gazteek izan dituzten desadostasunak daude.

Aste Santu aurretik eman zion Udalak Gazte Asanbladari lokala Kalebarrean. Orduetik hona hainbat egokitzapen lan egin dituzte lokal horretan, gaztetxea jartzeko. Orain dela gutxi KONTUOLAn bertan jakinarazi genizuen moduan, euren nahia zen lehenbailehen lan horiekin bukatu, eta herriko jaietarako gaztetxea zabaltzea.

Gauzak, baina, ez dira espero zuten bezala joan, eta azkenean, lokala lagatzea erabaki dute.

### UDALAREKIN HAINBAT DESADOSTASUN

Esan bezala, lokala lagatzeko arrazoia izan da Udalarekin ez dutela adostasunik egin. Aurreko agintaldiko Udalarekin adostasuna lortuta zuten gazteek: "Ez zegoen idatzizko hitzarmenik, baina ahozko adostasunera



Aurreko asteko egubakoitzean laga zuten lokala gazteek.

iritsita geunden", adierazi digute. Orain, baina, gauzak aldatu egin ei dira; halaxe azaldu digute: "Azken baten, arazoa da Udalak ez duela gaztetxerik nahi, gazteleku bat edo gazte lokal bat bai zik". Gazte Asanbladako kideen

esanetan, autokudeaketaren gaian dute desadostasuna; gazteek nahi dute gaztetxea eurek kudeatzea.

Udala gertu dago gaztetxea aurrera ateratzeko diru bat jartzeko, baina, gazteen esanetan,

kasu horretan, Udalak berak kudeatuko luke lokala. Gazteek nahi dutena da Udalak bere jarra aldatzea eta adostasunera iristea. Dena dela, Gazte Asanbladak lanean segituko duela adierazi digute.



### Martitzenean hasi ziren lanak

Azkenean, martitzen goizean hasi zituzten maristena izandako eraikina eraisteko lanak. Bi makinak dihardute lanean orduz gero. Aurreko astean dagoeneko Bergara alderako irteera itxi zuten, eta itxita segituko du lanek irauten duten bitartean. Udaleko arduradunen esanetan, gutxienez astebete iraungo dute lanek, baina litekeena da luzatzea.

Behin eraikina botata, gizarte etxea egiteko eraikin berria egiteko asmoa dute toki horretan./A.I.

### LABUR

#### San Martzial jaiak ospatuko dituzte Lizarraga auzoan

Astelehenean, hilak 30, zen San Martzial eguna, eta hainbat ospakizun egin zituzten. Eta oraingo asteburuan ere hainbat ekitaldi egongo da: besteak beste, txokolate jana eta herri afaria egingo dituzte bihar, zapatua, eta domekan, berriz, meza eta erromeria izango ditugu.

#### Uztailaren 13an ospatuko dute erretiratuen eguna

11:30ean meza izango dute, eta Bergarako Erretiratuen Abesbatzak abestuko du. Eguerdian bazkaria egingo dute. Izena eman nahi dutenek hila-ren 5ean, 7an edo 8an erretiratuen egoitzara jo beharko dute, 18:00etatik 19:00etara. Hiru euro ordaindu beharko ditu bakoitzak.

#### Idolaz-ek batzar berezia egingo du eguenean, hilak 10

Idolaz euskara elkarteak batzar berezia egingo du datorren eguenean, hilak 10. Olatan etxean izango da batzar hori, 19:00etan. Azken urteotan kide berriak topatzeko eta gutxienez eginkizunei aurre egiteko izan dituzten arazoak ikusita, etorkizunean zer egin erabakiko dute batzarrean.

#### Martitzenean hasi zituzten herriko Udaleku Irekiak

Martitzenean hasi eta hila-ren 17ra arte Udaleku Irekiak izango dituzte goizero herriko umeek. 5 eta 12 urte arteko ia 90 ume hartuko dute parte Udala antolatutako udaleku horietan.

DBHko ikasleek, bestetik, ingelesa ikasteko eta praktikatzeko udalekuak hasi zituzten, martitzenean haiek ere.

**IRAKURLIAREN TXOKUA**

**ALDUNDIARI ETA BERGARAKO  
ETA ANTZUOLAKO UDALAI**

Gipuzkoako Foru Aldundiari salaketa eta Bergarako eta Antzuolako Udalei gure keza helarazi nahi diegu.

Orain dela hilabete batzuk Bonbuluko etxea botatzeko asteak eta asteak behar izan zituzten eta orain, mendia mugitu delako, berriro ere itxi dute Bonbulutik San Antoniorako bidea. Hilabete baino gehiago pasatu da eta oraindik ez da inolako aurrerapenik ikusten.

Egoera hau guztiz salagarria iruditzen zaigu; izan ere, neglijentzia ez ezik, iruzurra ere badela iruditzen zaigu, eguna joan eta eguna etorri Antzuolako plazatik Bergarako autobus geltokiraino, joan-etorri bakoitzean 14,4 km egin behar izatea (6,6 km gehiago), berez, 7,8 km dituen ibilbidea egiteko, eta gastu hori, gainera, norbere poltsikotik ordaintzea. Bidea orain irekitzea eskatzen dugu.

GERTU GAE

**OSOKO BILKURA**

**Hainbat eztabaida  
sortu ziren bilkuran**

AINTZANE IRIZAR

**Aurreko asteko egunean egin zuten agintaldi berriko lehen-dabiziko ohiko osoko bilkura. Batzar hartan hainbat eztabaida sortu ziren Gertu Gaeko eta udalbatzarreko kideen artean. Agintaldi berriari begira hainbat erabaki hartu zituzten osoko bilkuran.**


Udalbatza berria osatzeko osoko bilkura berezia egin zutenetik bi aste ere pasatu ez zirenean, aurreko egunean, ekainak 26, egin zuten agintaldi berriko lehendabiziko osoko bilkura.

Ekainaren 14ko bilkuran ez bezala, hainbat eztabaida sortu ziren, aurreko astean, Gertu Gae plataformako kideen eta alkate berriaren artean. Hauteskunde kanpainan eta ondoren iragarri bezala, osoko bilkuran parte hartera joan ziren Gertu Gaeko kideak, nahiz eta bilkuran hartutako erabakietan botorik ez izan. Plataformako kideok Udalean eta haren erabakietan parte hartzearen gainean eta parte-hartze hori zelakoa izan behar duenaren gainean sortu ziren, hain zuzen

ere, eztabaidak osoko bilkuran barrena.

Eztabaidak eztabaida, hainbat gairen gaineko erabakiak hartu zituen udalbatzak. Besteak beste, osoko bilkurak egiteko eguna aldatzea erabaki zuten. Hemen-dik aurrera hileko lehen egubakoitzean egingo dituzte osoko bilkurak, goizeko hamarretan. Dena dela, osoko bilkurako gaia garrantzitsua bada, eta Udaleko arduradunek hala erabakitzen badute, egunean egingo dute osoko bilkura, 19:00etan.

Bestalde, Gobernu batzordea eratzea erabaki zuten, eta gainerako batzorde informatzaileak zelan osatuko dituzten ere erabaki zuten: Ogasun eta Pertsonal batzordean Basili Ormazabal eta Elvira Kortajarena egongo dira; Hirigintza eta Zerbitzuen batzordean, berriz, Jose Ignacio Beltran eta Dina Muxika; Kultura, Euskara, Kirola, Gazteria eta Hezkuntzarenean, Inigo Ramirez de Okariz; Osasun eta Ongizate batzordean, Dina Muxika eta Elvira Kortajarena; eta azkenik, Nekazaritza eta Ingurumen batzordean Dina Muxika zinegotziak jardungo du.



**Kalebarren jai giroan murgildu zen**

Egubakoitzean euria hasi zuenean, bazirudien eguraldiak ez zuela lagunduko. Azkenean, baina, uste baino eguraldi hobea egin zuen. Zapatuko Marrazki Lehiaketak arrakasta izugarria izan zuen; arbolaren bila ere sekula baino mutil gehiago joan ziren; gauean, berriz, herri afaria izan zen, eta Gurutzek denok jarri gintuen dantzan. Antolatzaileek zozketako zenbaki sarituak jakinarazi dizkigute: 165 zenbakia izan da saritua, eta uztailaren 15era arte dago aurkezteko epea. Sariduna azaltzen ez bada, 1.764 zenbakidun txartelari emango diote saria./A.I.

**HERRITARREN HITZA / Gerbasio Legorburu · Txistularia**

**Antzuolako txistulariak**

Lehen txistularixei buruz berba egitera noia. Nik hiru ezagutu ditut. Santiago Sologaitoa (Santi Montxon), Pedro Igarza (Pedro Xakuerre) eta honen semia, Eloy Igarza. Laugarrena, Pedro Telleria, 1936. urtian hil zan eta nik ez neban ezagutu.

Txistulari hauek domekero-garizuman izan ezik, bailabliak jotzen zittuzten herriko plazan, bostetatik zazpitterdiak aldera arte; udan edo neguan aldaketaren bat egiten zeben. Fandangak, arin-arinak, biribilketak eta pasakailiak jotzen zittuzten. Ez zan beste soinurik izaten,

eta arrakasta haundixa lortzen zeben, neskatilen artian, batez be, gizonekorik eta mutilik ez zan-eta irtetzen plazara.

Bazuten beste eginkizun garrantzitsu bat ere: domeka goizetan, zortziretako mezaren ondoren pasakailia egiten zeben, plazatik atera eta Kalegoira, Lamaiñonekua esaten jakon pareraino. Hemen buelta hartuta, Ondarretik



“Alboradak oso gogoko izaten zittuzten txistularixek”

behera Santiagoneko pareraino, eta handik plazara. Santikruzetan hasi (maiatzaren 3an) eta iraileko Santikruzak arte (irailak 14) egiten zittuen pasakaile horiek. Jaiegun haundittan, udal korporazioari udaletxetik elizara laguntzen zotsen, alkate-soinua joaz. Elizkizuna bukatutakoan, berriz

buelta arkupetaraino. Ondoren, zortzikua, fandangua eta arin-

arina jotzen zittuzten; ez jat ahazten zelako zirrara sentitzen nuen doinu horiek entzutean. Dantzari taldeari ere laguntzen zotsen. Bukatzeko, auzoetako jaietan dantza soinuak jotzen zittuzten. Bazkalostian, berriz, baserriz baserri alborada esaten jakon doinuak jotzen zittuzten baserrietako atarixetan. Berdin egiten zeben kaleko auzo batzutan be. Txistularixek oso gogoko izaten zittuzten alboradak, nahiko kafe, pattar eta zigarro-puro hartzen zittuztelako, beti ere, eskupeko batzurrekin batera.

**LABUR**

**Hiru antzuolar Iron Man lasterketan, Austrian**

Julen Garitano, Karlos Baleztena eta Imanol Pildain antzuolarak Austrian dagoeneko; astelehenean abiatu ziren hara, eta etzi, domeka, Iron Man proban hartuko dute parte.

Austriako Kärnten herrian jokatu dute lasterketa hori, eta honako ibilbidea egin beharko dute: 2,2 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta, horren guztia- ren ondoren, maratoia: 42 kilometro korrika.

**LARREA**  
TABERNA  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak  
Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaza*  
Apainketarako eta  
industriarako pinturak  
Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak  
Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32

*Tomas Gezalaza*  
Zoruen kutxilatua  
eta  
barnizaketa  
Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko uztailaren 4a / 148. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

## Udal batzordeen banaketa egiteko negoziatzen ari dira EAJ-EA eta Aralar


IRATI AGIRREAZALDEGI

Maiatzeko hauteskundeen ondoren eta ekainaren 14an udalbatza eratu eta gero, oraindik ez dute udal batzordeen banaketarik egin. Izan ere, Udaleko alderdiek negoziatzen dihardute. Baliteke uztailaren erdialderako jakitea emaitzak.

EAJ-EA koalizioa eta Aralar alderdiko zinegotziek hainbat batzar egin ostean, oraindik ez dute erabaki Elgetako Udaleko batzordeen banaketa zelan egingo duten.

Bukatu berri den agintaldian EAJ-EA koalizioak bost batzorde izan ditu bere esku: Hirigintza eta Ingurumena, Kirolak, Ogasuna eta Pertsonala, Hezkuntza eta Turismoa, eta Gizarte Zerbitzuak. Gainerakoak, Baserritarrena eta Euskara, Kultura eta Gaztedia batzordeak, Euskal Herritarrok alderdiak kudeatu ditu.

Bestalde, Mankomunitateko eta beste hainbat erakundetako batzarretan batzordeburuek hartu dute parte, eta gaiaren arabera batzorde bateko edo besteko ordezkariak hartu du parte.



EAJ-EA koalizioa eta Aralar hainbat aldiz elkartu dira batzordeen gaiaren gainean berba egiteko.

### BATZARRAK

EAJ-EAko ordezkarien esanetan, oraindik negoziaketetan dihardute, eta pare bat batzar egin eta proposamen batzuk aurkeztu

badituzte ere, ez dute erabaki zehatzik hartu. Oraingoz, koalizioek hainbat udal batzorderen ardura hartzea eskaini diete euren batera udalbatza osatzen

duten Aralarko zinegotziei. Hilaren 7an Aralarkoekin beste batzar bat egitekotan dira, eta baliteke bertan berba egindakoaren arabera batzordeen banaketa egitea.

Aralarko ordezkariak berretsi egin dute elkarrizketek aurrera segitzen dutela eta oraindik gauzak erabakitzeko daudela.

Hala ere, garbi utzi dute hauteskundeak hain bereziak izanda eta koalizioaren eta euren alderdiaren artean botoetan hain alde txikia egonda -bost boto-, batzordeen banaketa duina egitea espero dutela, eta hori jakinarazi diete koalizioko zinegotziei.

Bestalde, hainbestetan aipatu duten herritarren parte-hartzearen garrantzia berriro azpimarratu dute Aralarkoek. Euren ustez, elgetarrek Udaleko gaietan parte hartzeko modua batzordeak ez ezik osoko bilkurak ere badira, eta horiek indartu egin beharko lirakeke, eta Gobernu batzordeari pisua kendu.

### ERABAKIA UZTAILAREN ERDIALDEAN

Hortaz, uztailaren erdialderako batzordeak zelan banatuko diren eta batzorde bakoitzeko buruak zein izango diren erabakita izatea espero dute udalbatzako kideek. Horren ondoren, herritarrei jakinaraziko diete batzorde bakoitzaren helburuak eta datorren agintaldirako betebeharrak zein izango diren.

## ARETO FUTBOLA

### Elgetarrik ez areto futboleko finalean

I.A.

Zapatuan, ekainaren 28an, jokatutako zintzen kiroldegi kanpoko kaxtan aurtengo Areto Futbol Txapelketako finalerdietako partidua, eta dagoeneko badakigu ze taldek jokatuko duten finala.

Lehenengo fasea gainditu ostean, lau taldek jardun zuten finaleko txartela lortzeko lehian. Txapelketan Elgetako talde bi egon dira: Txapela eta La Kokotxa. Baina finalerdietarako bakarra sailkatu da.

Hala, Arrasateko Ariñiketan taldeak Elgetako Txapela taldeari irabazi zion; eta Bergarako Chievok, berriz, Vicios talde eibartarrari.

Hortaz, Ariñiketan eta Chievok taldeak izango dira finalean. Elgetarrik finalaren atarian izan badira ere, ez dute lortu txapelketako azken partidura iristerik, 8-5 galdu zuten eta finalerdia.

Elgetako jaietan, uztailaren 5ean (zapatua), jokatuko da finala, arratsaldeko laurutan. Gero, sari banaketa egingo dute.



Elgetako Txapela eta La Kokotxa taldeek hartu dute parte txapelketan.

## LABUR

### Eskulan erakusketa, jaietan, kultura etxean

Azoka Nagusiko jaietan hainbat elgetarren eskulanak egongo dira ikusgai kultura etxean. Hamalau lagun talde bitan banatuta ikasturtean barrena batu dira liburutegian eskulanak egiteko. Orain, euren berritutako altzari zaharrrak, berriak, kristalezko hauteskontziak, olioz eta pintura akrilikoz egindako margolanak... jendaurrean jarriko dituzte. Erakusketa jaietan egongo da zabalik, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere.

## ELKARRIZKETA

MIREIA RUBIO ETA LEIRE URGOITIA/FUTBOLARIAK

## "Inoiz Athleticen jokatzekak ilusioa egingo liguke"

**A**thletic futbol taldeak neskendako probak egin ditu astean barrena. Eta proba horietan elgetar bi izan dira: Leire Urgoitia eta Mireia Rubio. Euren zaletasunaren eta proben gainean egin dugu berba neska gazteekin.

## Noiztik futboleant?

Leire: Txikitatik. Lehenengo, eskola jokoetan ibili ginen eta gero, azken denboraldian, Bergarako nesken taldean jokatu dugu. Futbol ibilbidea biok batera egin dugula esan daiteke.

## Zela animatu zarete Athleticen probetara joatera?

Mireia: Aitaren lagun batek sarritan esaten dit Lezamatik deitu diotela ni hara joan nadin, betiere brometan. Baina oraingoan ez zen broma izan. Hark jakin zuen probak egin behar zituztela, eta bakarrik ez joatearren, Leirerekin batera joan naiz. Esperientzia berria izan da guretako.

## Zelako probak izan dira?

Leire: Lehenengo, pabilioi baten sartu eta proba teknikoak



egin genituen: driblinak, jaurtiketak... Gero, gure jokoa zelakoa den ikusteko futbol partidua jokatu genuen zelaian. Probetan, guztira, 40 neska egon ginen. Gehienak bizkaitarrak, baina tartean gipuzkoarrik ere bazegoen, baina gutxi batzuk.

## Baduzue aukerarik Athleticen sartzeko?

Mireia: Probak gure jokoa ikusteko izan ziren. Orain, gure taldearekin segitu behar dugu, eta gertutik ikusiko du gure eboluzioa Athleticen. Gerora hartu behar bagaituzte, esango dute.

Dena dela, hango entrenatzaileak esan zuen oso kasu espeziela izan behar dela taldean zuzenean sartzeko.

## Ikusten duzue zuen burua Athletic taldean?

Leire: Entrenatzen segituz gero eta aurrera egiten badugu,

denok daukagu aukera; ilusiorik, behintzat, ez zaigu falta.

Mireia: Oso urrun ikusten dudana ametsa da hori, baina egunen baten, igual... Nork daki!

## Athletic taldeak fitxatuz gero...

Leire: Ilusio handia egin arren, asko pentsatu beharko nuke joan edo ez. Urrun dago, eta entrenamenduetara autoan joatea... Ez dakit ikasketekin bateragarria izango litzatekeen.

Mireia: Bi aldiz pentsatu barik joango nintzateke Athleticera, dudu barik.

## Zein izan da sekula jokatu duzun partidurik gogoangarriena?

Leire: Donostian, hondartzako futbol txapelketan iaz jokatu-tako finala. Hasieran eskas hasi ginen, partidu gehienak galtzen, baina bigarren bueltan jokoa hobetu eta finalera iritsi ginez, gogoratzeko moduko partidua da finalekoa.

Mireia: Orain dela pare bat urte Gipuzkoako Txapelketan hirugarren egin genueneko daukat gogoan. Finalerdietaraino iritsi ginen, eta kanporatu egin gintuzten.

## KIROLA

## Kirol ikastaroetan izena emateko epea hilaren 7ra arte luzatu dute

**Udarako kirol ikastaro eskaintza zabala egin zuen Udaleko Kirol Zerbitzuak. Eta izena emateko epea amaituta, eskaintako lau ikastaro baino ez dituzte abian jarriko: aisialdi jarduerak, multikirol ikastaroa eta aerobik saioak umeendako eta helduendako.**

3 eta 6 urte arteko eskola-umeei zuzendutako aisialdi programan 12 lagunek eman dute izena. Goizez elkartuko dira, eskola zaharreko lokaletan, denbora libreko jarduerak egiteko.

7 eta 12 urte artekoek, berriz, hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute, multikirol ikastaroaren bidez. Izena eman duten sei gaztetxoek lehenengo hitzordua uztailearen 7an izango dute, goizeko hamaiketan, kiroldegiko gimnasioan.

Bestalde, aerobika egiteko 20 lagunek eman dute izena, eta bi taldetan jardungo dute kiroldegiko gimnasioan: hain zuzen ere, txikien eguaztenetan eta eguaztenetan 18:00etatik 19:00etara izango dute ikastaroa eta gazteek eta



Aisialdi taldean 3 eta 6 urte bitarteko 12 ume izango dira.

helduek, berriz, astelehenetan eta eguaztenetan 20:00etatik 21:00etara.

Ikastaro guztiak uztailearen 7an hasi eta uztailearen 24an amaituko dira, azkena salbu; izan ere, aerobikeko nagusien taldeak uztailearen 30a izango du azken eguna. Horrenbestez, Udako Kirol Kanpainako ikastaroek hilabete iraungo dute.

## ORAINDIK GARAIZ

Izen emateko epea dagoeneko amaitu den arren, Udaleko Kirol Zerbitzutik esan digutenez, lau ikastaro horietan parte hartu nahi duenik balego, oraindik garaiz legoke. Izan ere, uztailearen 7ra arte luzatu dute izenemate epea. Interesatuak Elgetako udallexera jo eta Oskarregatik galdetu beharko dute.

## PILOTA

## Lau t'erdiko pilotari finalistak erabakita

**ETB Kantxa Lau t'erdiko Pilota Txapelketak baditu finalistak. Egubakoitzean jokatu zituzten finalerdiak: kadeteetan, Iraolak Goenagaren kontra eta Elurbek Apeztearen aurka; 23 urtez azpikoetan, Mendizabalek Dominguezaren kontra eta Diazek eta Sorarrainen kontra.**

Iraolak eta Goenagak, biek hala biek, gogor jotzen diote pilotari. Iraola baztandarra faborito zen, askoren iritzi, eta nagusitasuna erakutsiz berak lortu zuen ETB Kantxa txapelketaren finalerako txartela Goenaga azpeitiarraren kontrako partidua 22-7 irabazita. Goenagaren sakea eta pilota txokoan lagatzeko dituen erraztasuna aipatzen dituzte pilotazaleek, baina horiek ez ziren nahiko izan Iraola nafarrari aurre egiteko.

Kadete mailako bigarren partiduan, berriz, Apeztearekin goizuetarra nagusitu zitzaion Elurbek lizartzarrari: 22-14 izan zen partidua emaitza.

Apeztearekin 15 urte baino ez ditu, eta finalerdietara sailkatu-

tako gainerako lau pilotariak bigarren mailako kadeteak izan arren, Elgetako txapelketa segitzen duten pilotazaleen arreta bereganatu du. Hortaz, finalerdiak jokatu, Iraolak eta Apeztearekin nor baino nor gehiago jardungo dute finalean.

## 23 URTEZ AZPIKOAK

23 urtez azpikoek artean, berriz, finalerdiak jokatu zituztenetik hiru gipuzkoarrek dira: Mendizabal zaldibiarra, Dominguez Donostiako Altza auzokoa eta Alkizako Sorarrain. Laugarren pilotaria, Diaz, berriz, iruindarra da.

Uztailean profesionaletan debuta egingo duen Mendizabal pilotaria faborito zen finalerdia irabazteko, eta zaleen pronostikoak betez 22-10 nagusitu zitzaion Dominguezi. Azkenik, Diaz Iruindarrek eta Alkizako Sorarrainek jokatu zuten azken finalerdia, eta lehian Sorarrain nagusitu zen: 10-22 izan zen emaitza. Hortaz, finalean Mendizabalek eta Sorarrainek jardungo dute.

Finalak Azoka Nagusiko jailetan jokatu dira, uztailearen 6an, Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

## ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

San Martzial eguna,  
1960. urtea

**D**omekan ehunka lagun elkartuko dira San Martzialgo erromerian. Alboko argazkia 1960ko San Martzial egunekoakoa duzue. Orduan ere, letania errezatuz, San Martzialera igotzeko ohitura zegoen, eta hor duzue parte hartu zuen bergarar taldea, ermitaren ondoko eskaileretan

ateratako irudian. Hauek dituzue hor azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Aurreko ilaran: Natalio Juaristi, On Buenaventura Ariznabarreta abadea, Mikel Zabaljauregi (gurutzeari eusten dabilen mutikoa), Pikasarri, Miguel Arizmendi (belauniko) eta Maite Zabaljauregi (neskatila).

Erdian: Xabier Aranburu, Genaro Lekuona, Jose Joaquin Aranes, Fernando Idigoras, Pako Urtzelai eta Joaquin Etxaniz.

Atzeako ilaran: Luis Urtzelai, Felix Garitano eta ezezaguna.

**Argazkia:**  
Maria Victoria Arizmendi



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA


Barrenkalea,  
lehen eta orain

**U**rte asko pasatu dira alboko bi argazkien artean, baina Barrenkaleak ez du itxuraldaketa izan. Galtzada-harriagatik izango ez balitz, kosta egingo litzaiguke bi irudien arteko diferentziak antzematea. Ezkerreko irudia orain dela 60 urte ingurukoa da eta hainbat herritar kale erditik paseatzen ikus ditzakezue, dotore jantzita; baliteke jai egunen baten ateratako argazkia izatea.



≈ 1940

Ez dakigu zein urtekoa den argazkia, baina 1940aren ingurukoa izan daiteke. Barrenkalean galtzada-harria zegoeneko irudia.



2003

Barrenkaleak herriko gune bizienerakoa izaten segitzen du, denda ugari daude eta. Aste bukaeran zirkulaziorako itxi egiten dute.

**Z**umelaga  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5  
BERGARA  
943 76 53 09

PINTXO eta BOKADILAK  
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58



udaberria  
uda



Otalora z/g, ARRASATE  
943 79 82 68



Irala 5, BERGARA  
943 76 27 16



Barrenkalea 35, BERGARA  
943 76 29 46

Deskubritu ezazu

# Signum Klase berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.



Gutziz auto berria. Barrutik aparta eta kanpoko diseinua erabat dotorea. Opel Signumek parekorik ez duen espazioa emango dizu, erabateko flexibilitatea eta benetako erosotaduna, bai zuretzat eta baita atzealdeko bidaiarientzat ere. ECOTEC motore generazio berritzailearekin, horren erakusgarri 155 zalditako injekzio zuzena duen 2.2 16v motorea, 177 zaldi dituen 3.0 V6 CDTI Turbodiesel Common Rail motorea eta 211 zaldidun 3.2 V6 motore indartsua. **Auto honetan zu zara ohorezko gonbidatua. Zuretzat egin dugu. Opel Signum berria da.**

## Giauto

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. **BERGARA**

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)